

Udako liburutegiak

AURKEZPENA

Aurten ere, Udako programazioaren barne Keima Animazioak, ume, nerabe eta familientzako esparru baten alde lan egin nahi du, non ekintza, aparatu eta ikuskizun ezberdinen bitartez, jolasten eta dibertitzen ikas dezaten. Umeek egun zoragarri eta ahaztezinak pasa ahal izango dute, eta laguntzen dituzten gurasoak eta familiarrak, eurekin disfrutatu ahal izango dute,

beraiantzat espresuki diseinatutako ekintzetan.

Esparru honek oso planifikazio sakona behar du, nori zuzenduta dagoen eta parte hartuko duten pertsona kopurua kontutan hartuta. Programak, jolas-joera eta kultur eskaintzak batzen ditu, parte hartzen duten guztiak disfrutatu ahal izateko.

FUNTZIONAMENDUA...

Dagokion denbora libre a oso zuzenduta eta antolatuta egongo da, Gainera programa honen funtzionamendu oneko buru belarri lan egin dugu, umeen artean eta umeak begiraleekin harreman erosoan

lortu dezaten, hau izango baita programaren arrakasta ziurtatuko duena.

Egingo diren tailer eta ekintza guztiak adin ezberdinei egokituta egongo dira:

DENBORALIZAZIOA:

Ekintza hau gutxienez 5 egunetako iraupena izango du, astelehenetik ostiralera. Orduetgia 12:00tik 14:00ra eta 16:30tik 19:30ra.

Oharra: Ekintzen denboralizazioa, ordutegia eta egunak, zuen beharretara moldatu ahal izango da.

GIZA BALIABIDEAK:

Ekintza hau dinamizatzeko, euskaldunak diren begiraleak izango ditugu, tituludunak, eta ekintza mota hauetan eskarmenudunak. Badago aukera begiraleak udalerrri berekoak izatea, lan kontratua eta segurantza sozialarekin.

BALIABIDEAK:

Keima Animazio S.L.-k hurrengo baliabideak eramango ditu: Egurrezko stand mobila, eguzkitakoak, esparrua hezitzeko heziak, mahai jolasak, koloreatzeko marrazkiak, eskulanentzako materialak eta mahaiak. Egunero egunkariak, liburuak, ipuinak, fitxak...etb.

Ekintzak garatzeko beharrezkoak diren baimenak lortzeaz ere arduratuko da.



HELBURUAK...

Programaren helburu orokorra, udako oporretan, biztanleei jolas-joera eta elkar-bizitzeko esparrua eskaintzea da.

Ondoren, gure asmoa bete ahal izateko, nahi eta nahi ezkoak diren helburu batzuk aipatuko ditugu:

Irakurtzeko gogoia piztea, eta euskarazko literaturarekin ere gozatzea

Liburuek eskaintzen digutenaz ohartu: asmaezinezko historiak, ikaskuntzak, eskulanak nola egin, eta abar.

Aisialdiaz gozatzea, jolasean, sortzen eta irakurtzen.

Beste umeekin elkar eragiteko aukera emoten dien esparrua lortu.

Eskuekin abilezia garatzea eta sorkuntza eta estetikaren sentsua lantzea eta beraien eskuek sortu dezaketenaz ohartu eta gozatzea.

Euskararen erabilera sustatzea. Euskaraz bizitzearen alde esfortzua egitea.

Infraestruturaz guztia egurrezko 2x3 m.tako stand baten inguruan kokatuko da, liburuak uzteko baldekin, lau leiho eta mostradoreduna.

Lorategiren esparrua, koloretako heziez inguratuta egongo da eta bertan burutuko diren ekintzak berezita egongo dira. Behar den esparrua, baimendutako esparrura egokituko da. Ekintza hauen infraestruturaz, ekintza irauten duten bitartean finkatuta geldituko da.

Udako liburutegiak

EKINTZAK



ESKULANEN TAILERRAK

Eskulan tailer hauetan, ume bakoitzak izan ditzakeen ideiak burutu ditzake materiala ezberdinekin, bere sormena landuz.



IPUIN KONTALARI IKUSKIZUNA

Astearen azken egunean formatu txikiko ipuin kontalari ikuskizun bat garatuko da, ordu erdiko iraupenarekin.



LIBURU ETA IPUINEN MAILEGU ZERBITZUA

Kaseteen arduradunek, liburuen mailegua kontrolatuko dute irakurleen datuak koadernotxo batean apuntatuz. Euren lana ere egunkari, liburu eta abarren maileguen estatistikaz arduratzea izango da.



MAHAI JOLASAK

Bertan jolas hauek aurki daitezke: partxisa, oka, xake-jokoa, trivial, nor da nor, etb. Mahai jolas kooperatiboak ere izango dira. Jolasak bai euskaraz eta bai gazteleraz izango dira.



KASETETAN EGUNKARIEN MAILEGU ZERBITZUA

Kaseten arduradunek helduen aldizkarien mailegua ere kontrolatuko dute.



JOLASTEN IKASI

4 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Irakurri eta idazten ikasteko fitxak eta buru argitasun jokoak ere egin ahal izango dituzte. Jolasean ikasteko beste era bat.



LIBURU ETA IPUINEN LIBURUTEGIA

Parte hartzaileek, euskaraz nahiz erdarazko liburu eta ipuinak hartu ahal izango dituzte. Pertsona batek umeak animatuko ditu bertan irakurtzera, liburuak bananduko ditu eta bera izango da dena txukun egotearen arduraduna.